

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

R9/2009 ebazpena

13/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 3an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada lehendakariak, eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekideez osatuak, onartu du beheko

AKORDIOA

[1. ENTITATEA]-(a)k (aurrerantzean sozietatea, identifikazio fiskaleko BNNNNNNNNN zenbakiduna) Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren aurrean jarritako eskumen-gatazka automatikoari buruzkoa, sozietate horri 2001 eta 2002 ekitaldietako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) itzultzea zein organo eskumendunen ardura den zehazteari dagokionez (itzultze hori Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du, 13/2008 espedientearen bidez).

I.- AURREKARIAK

1. Gatazka hau sozietateak abiarazi zuen, 2008ko maiatzaren 2an Arbitraje Batzorde honetara iritsitako idatziaren bidez, eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiak (aurrerantzean EIABA), abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, bere 13.3 artikuluan zehazten duenaren arabera, Administrazio biek beren buruak 2001 eta 2002 ekitaldiei dagokien BEZa itzultzeko ezgai aitortu zituztenean.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

2. Sozietatea Bilbon sortu zen, 2001eko otsailaren 22an, eta hiri horretan finkatu zituzten sozietatearen helbide sozial eta fiskala. 2001eko martxoaren 1ean aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean jarduera-hasierako zentsu-aitorpena. Era berean, 2001eko martxoaren 16an aurkeztu zuen (jarduera-hasiera 2001eko martxoaren 2an izan zela zehaztuta) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren aitortpena [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)n eta 2001eko ekainaren 14an [BARTZELONAKO UDALERRIA]-(e)n (jarduera-hasiera 2001eko ekainaren 15ean finkatuta dago). Aipatutako aitorten horietan guztietan honako hau da zerga-helbidea: [1. HELBIDEA], [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)n.

3. 2001eko ekainaren 26an gauzatu zen ANNNNNNNN IFZ eta helbide sozial zein fiskala [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)n duen [2. ENTITATEA]-(r)en jarduera-adar baten zatiketa partziala, iraungitzerik gabe; jarduera-adar hori gatazka abiarazi duen sozietateak bereganatu zuen oinordetza unibertsal tituluz, 2001eko urtarrilaren 1era atzera eraman zitezkeen kontabilitate-ondoreekin. Eragiketa horri eskritura publikoa egin eta Merkataritza Erregistroan inskribatu zen 2001eko abuztuaren 2an; zatiketa partzialaren idazpena 2001eko abuztuaren 31n kontabilizatu zen Liburu Egunkarian.

4. 2001eko urriaren 23an sozietateak Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zuen 2001 ekitaldiko lehen hiruhilabetekoari zegokion BEZaren aitorten-likidazioa; horren arabera, 17.308 euro jaso behar zituen sozietateak.

5. 2002ko urtarrilaren 30ean sozietateak urteko BEZaren aitorten-likidazioaren laburpena aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean; horren arabera 108.715,73 euro itzuli behar zitzaizkion sozietateari. Orobat, idatzi horretan adierazi zuen eragiketen % 100 lurralde komunean egin zirela. Gainera, egun horretan bertan aurkeztu zuen Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) aurrean Esportatzailean eta beste Ekonomia Eragile batzuen Erregistroan (EEEE) alta emateko eskabidea; 2002ko martxoaren 4an eta urte bereko martxoaren 18an ZAEAn eta Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu zituen, hurrenez hurren, EEEEn Enpresa Handi gisa alta emateko eskabideak.

6. 2002ko azaroaren 14an Bizkaiko Foru Aldundiak sozietateari jakinarazi zion 2001eko BEZa itzultzeko eskabideari ukoa ematea adostu zuela, batetik, sozietate

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

bereganatzailearen eta zatiketarik eratorritako eragiketen bolumena -azken horiek aurrekoei eransten baitzaizkio-, 500 milioi pezetatik gorakoak zirelako eta, bestetik, eragiketa horiek guztiak lurralde komunean gauzatu zirelako.

7. Sozietateak 2002ko azaroaren 29an aurkeztu zuen ZAEAn Enpresa Handien hileroko BEZaren aitortpena, salbuespen modura, Bizkaiko Foru Aldundian 2001ean aitortutako zenbatekoak jasotzen zituen. Sozietate horrek, aurreragoko aurrekarian aipatutako Aldundiaren ukoa ikusita, eta 2001ean 8.165.012,56 euro fakturatu zituela aintzat hartuta, abenduaren 2an idatzi bat aurkeztu zuen ZAEAn 2001eko BEZa itzultzea eskatzeko, 5. aurrekarian aipatutako zenbatekoarekin, hots, 108.715,73 euro. Zehaztutako fakturazioaren zenbatekoa sozietateak gauzatutako eragiketen batura (2.356.848,10 euro) eta [2. ENTITATEA]-(a)k bereganatzailearen kontura egindakoena (5.808.164,47 euro) batuz lortutakoa da, izan ere, bereizitako jardueraren adarra bereganatzeak 2001eko urtarrilaren 1era atzera eramaten zituen haren kontabilitate-ondoreak.

Aldez aurretik, 2002ko azaroaren 28an, zehazki, sozietateak ZAEAn aurkeztu zuen jarduera-hasierako zentsu-aitortpena, 2001eko abendura arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

8. 2002ko uztailaren 4an eskritura publikoa egin zuen helbide soziala aldatzeko akordioarekin, [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)tik [BARTZELONAKO UDALERRIA]-(e)ra, baita helbide-aldaketaren zentsu-aitortpena aurkeztu ere ZAEAn, 2002ko abenduaren 16an.

9. 2002ko urtarrila eta azaroa bitartean, sozietateak ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Berezian aurkeztu zituen 2002 ekitaldiko BEZaren aitortpen-likidazioak; guztira, 475.137,49 euro itzuli behar zitzaizkion.

10. 2002ko abenduaren 16an ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Bizkaiko Lurralde Ikuskaritzako 4. Unitateak txosten bat egin zuen BEZaren Administrazio eskumendunaren gainean; txosten horretan desegokitzat jo zuen eragiketen bolumena zehazteko orduan [2. ENTITATEA]-ren kontura 2001eko urtarriletik aurrera egindako eragiketarik eranstea, horixe egin baitzuen Bizkaiko Foru

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

Aldundiak urte horretako eragiketen bolumena 500 milioik pezetatik gorakoa zela ondorioztatzeko. Jarduera-hasieraren datari dagokionez, bereizketa egin zuen, modu honetan: a) ikuspuntu formaletik, martxoaren 1a hartu beharko litzateke hasiera-datatzat (egun horretan aurkeztu zen jarduera-hasierako zentsu-aitorpena) eta, hortaz, Foru Ogasuna litzateke 2001 zein 2002 ekitaldietako BEZa itzultzeko eskumenduna; b) ikuspuntu materialetik, “eta aintzat hartuta sozietatea beste entitate baten zatiketa partzialaren onuraduna izateko sortu zela, oso zaila da zehaztea noiz hasi zen jarduera; baiezta liteke egindako egiaztapenen arabera jarduera zatiketa-idazpena gauzatzean hasi zela, gutxi gorabehera”, horrenbestez, jarduera-hasierako egun gisa data hori hartuz gero, 2001eko eragiketen bolumena urte osora jasota 500 milioi pezetatik gorakoa litzateke, baita 6 milioi eurotik gorakoa ere; hori dela eta, Estatuari dagokio BEZa itzultzea, eragiketa guztiak lurralde komunean gauzatu direnez gero. Azkenik, zerga-helbidea zuzentzeko ofiziozko espedientea abiaraztea proposatu zuen, eta helbide berria [BARTZELONAKO UDALERRIA]-(a)n finkatzea, sozietatea sortu zeneko egunera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

11. 2003ko urtarrilaren 30ean aurkeztu zuen sozietateak 2002ko azken aitorten-likidazioa (390 eredu) Bizkaiko Foru Ogasunean; hor jasotakoaren arabera, 434.453,08 euroko aldea izan zen (zenbateko horren eta ZAEArri eskatutako zenbatekoaren arteko aldea abenduko hileroko likidazioan dago, dirudienez, zerga-helbidearen aldaketa jakinarazi ondoren) erantsitako eta sortutako zenbatekoen artean, baina sozietateak ez zuen zehaztu konpentsatzea edo itzultzea hautatu zuen. Gatazka automatikoa proposatzeko idatzian, sozietateak dio 2002an 2002ko BEZa itzultzeko eskatu ziola Bizkaiko Foru Aldundiari, eta ezezko erantzuna jaso zuela 2004ko azaroaren 18an; baina, egiazki, sozietateak bidalitako agirien V. eranskinean, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako espedientean ere, ez da itzultzea ukatzen, Esportatzaileen eta beste Eragile Ekonomikoen Erregistroan izena emateko eskabidea baizik.

12. 2003ko maiatzaren 13an, sozietateak Enpresa Handien Kudeaketako Lurralde Unitateak (EHKLU) egindako akordioaren jakinarazpena jaso zuen; jakinarazpen horren bidez ezetsi zen 2001eko BEZa itzultzeko eskabidea, Estatuko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

Administrazioak horiek ordainarazteko eskumenik ez zuela iritzita. Funtsean, argudiatu zuen sozietateak 2001eko martxoaren 1ean hasi zuela jarduera, zentsu-aitorpena aurkeztean, eta kasu horretan urteko eragiketen bolumenak ez zuela 500 milioi pezetako zenbatekoa gainditzen; horrenbestez, Foru Ogasunari zegokion zenbateko hori itzultzea. Erantsi zuen 1981eko Ekonomia Ituneko 28.3 artikulua ez duela zatiketa partziala aintzat hartzen eragiketen bolumena kalkulatzeko eta Administrazio eskumenduna zehazteko eta, horren ondorioz, ez direla kontuan hartu behar [2.ENTITATEA]-(a)k egindako eragiketak.

13. Akordio horren aurrean, sozietateak berrezarpen-errekurtsoa jarri zuen 2003ko maiatzaren 30ean EHKLUaren aurrean, baina errekurtsio hori ezetsi egin zen 2004ko apirilaren 2ko akordioaren bidez, aipatutako arrazoi bera argudiatuta. Sozietateak jarritako errekurtsioaren idatzian osagai berri bat erantsi zion eztabaidari, hots, hura sortu zenetik helbide eragingarria [BARTZELONAKO UDALERRIA]-(e)n izan zuela, eta ez [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)n, azken horretan laguntza-jarduerak baino ez baitzituen gauzatu. Ezesteko akordioaren arabera, jarduera 2001eko martxoaren 1ean hasi zen eta sozietatearen eragiketen bolumenak ez ditu barne hartu behar bereganatutako jarduera-adarraren kontura egindakoak. Horrela, jarduera 2001eko martxoaren 1ean hasita, 10 hilabetetan fakturatutako zenbatekoa aintzat hartu (2.356.848,10 euro) eta urte osora jaso behar da: 2.828.217,72 euro, hau da, 500 milioi pezeta baino gutxiago. Sozietateak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zion 2004ko maiatzaren 5eko berrezarpen-errekurtsoaren ebazpenari, baina erreklamazio hori onartezintzat jo zen, epez kanpo egoteagatik, 2008ko apirilaren 24ko Kataluniako Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegiaren akordio bidez.

14. 2003ko abenduaren 18an jakinarazi zitzaion sozietateari A02 707788182 aktatik eratorritako zerga-likidazioko administrazio-egintza, 2002ko urtarrila eta azaroa bitarteko hileroko BEZaren aitortpen-likidazioak erregulatzekoa; horren bidez bueltan jasotzeko eskubidea ukatu zitzaion, Administrazioa zerga ordainarazteko eskumenduna ez zela iritzita, eta espresuki adostu zen epe horietako hileroko aitortpenak ez zirela bidezkoak, EHKLUaren akordioaren aurrean jarritako berrezarpen-errekurtsoan emandako arrazoi berberak zirela eta (funtsean, aurreko ekitaldian ez zela 6 milioi euroko bolumena gainditu). Hala eta guztiz ere, oinarrizko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

berritasun gisara, aintzat hartzekoa da likidazio-egintza eta aurreko akta Zerga, Lurralde eta Batasun Politikako Idazkaritza Nagusiaren 2002ko irailaren 10eko Txostenean oinarritzen direla, eta azken hori kontuan hartuko dela gatazka hau ebazteko orduan, hala badagokio. Likidazio-egintza horren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zen Kataluniako Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegian. Azken horrek sozietatearen itzultze-eskabidea ezetsi zuen 2008ko uztailaren 17ko akordioaren bidez. Berritasun bakarra izan zen sozietateak 2001ean egindako eta urte osora jasotako eragiketen bolumena 2.852.240,06 eurokoa izatera igaro zela; nolana ere, zenbateko hori 6 milioi eurotik beherakoa da (aintzat hartu behar da eragiketen bolumen-zenbatekoaren igoera, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itun berriak gauzatu zuena, eta horren iraunaldia urte hartako urtarrilaren 1era atzera eraman zela). Kataluniako Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegiak berretsi zuen jarduera-hasiera 2001eko martxoaren 1ean datzala eta ez dagokiola [2. ENTITATEA]-ren zatiketa partzialaren ondorioz egindako eragiketak aintzat hartzea aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena kalkulatzeko orduan. Hala ere, gertakari garrantzizkoa ondorioztatu daiteke Kataluniako Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegiaren akordiotik (gorago esan bezala, sozietateak EHKLUaren akordioaren aurka jarritako berrezarpen-errekurtsoan jaso zuen arren): sozietateak emandako alegazioen artean berriro aipatzen zela, azken argudio gisa, “zerga-helbideari dagokionez (...) ez da egon eta ez da inoiz egon [BIZKAIKO UDALERRIA]-(e)n, [BARTZELONAKO UDALERRIA]-(e)ko [2. HELBIDEA]-(e)n baizik; gainera, helbide horretan daude sozietatea kide den taldeko sozietateen jarduerak kudeatzen dituzten zerbitzu zentralak”.

15. 2008ko maiatzaren 12ko bilkuran adostu zuen Arbitraje Batzordeak eskumen-gatazka automatikoa onartzea, eta horren berri ematea ZAEArin zein Bizkaiko Foru Aldundiari, baita hilabeteko epea ematea ere, bi Administrazioei, espediente osoa bidaltzeko, EIABako 13.3 artikularen bigarren paragrafoan oinarrituta.

16. Bizkaiko Foru Aldundiak Batzorde honetara 2008ko ekainaren 23an helarazitako idatziaren bidez bidali zituen sozietateari lotuta bere esku zituen aurrekari eta agiriak, inolako adierazpen ez alegaziorik egin gabe.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
13/2008	R9/2009	2009/04/03	Estatuko Administrazioa	Bizkaiko Foru Aldundia	Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ

17. ZAEAk bidalitako aurrekariak eta agiriak, berriz, 2008ko ekainaren 20an iritsi ziren Batzorde honetara. Aurrekarietan oinarrituta, idatziak zenbait alegazio jasotzen zituen gatazkaren funtsari buruz, auzialdi egokia ez bazen ere; hona hemen alegazio horien laburpena:

a) Ez da gatazka inolaz ere onartzen, epez kanpo egoteagatik.

b) Ez da gatazka inolaz ere onartzen Kataluniako Ekonomia eta Administrazioeko Lurralde Auzitegiak ebatzi baitu dagoeneko 2001eko BEZa itzultzeko eskabidea, eta ebazpenaren zain baitago 2002ko BEZaren likidazioa organo ekonomiko-administratibo horren aurrean (ikusitako bezala auzia —administratiboa dena, eta ez auzibidezkoa— *ex post* bukatu da, 2008ko uztailaren 17an erreklamazioa ezesteko hartutako akordioaren bitartez).

c) Horrez gainera, proposatutako gatazka onartzen bada, ordainarazteko eta 2001eko eta 2002ko urtarrila eta azaroa bitarteko BEZa itzultzeko eskumena duela aldarrikatzea ez dagokio ZAEARI, Bizkaiko Foru Aldundiari baizik, zuzenbide-oinarrietan adieraziko ditugun argudioetan oinarrituta.

18. Bi hilabeteko epean Administrazio batek ere bere burua eskumenduntzat jo ez zuelarik, eta, horren ondorioz, EIABAko 13.3 *in fine* artikuluan aurreikusitako prozeduraren izapideak gelditzeko arrazoia desagertu zelarik, 2008ko irailaren 24an espedientea argitara emateko jakinarazpena bidali zitzaizen interesdunei, beren asmoak defendatzeko egoki irizten zizkieten alegazioak egin zitzaizkion.

19. Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honetara 2008ko urriaren 23an helarazitako idatziaren bidez egin zituen bere alegazioak. Idatzi horretan eskumengatazka automatikoa onartzeko eskatzen du, eta ZAEA jotzen du 2001eko BEZa ordaintzeko eskumenduntzat. Horrez gainera, ez dator bat, funtsean, eragiketa-bolumena kalkulatzeko moduarekin, hau da, 2001eko (sozietatearen lehen jarduerak) eragiketen bolumenari eragiten dion jardueren hasiera-datan oinarritutakoarekin.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

2002ko BEZa itzultzeari dagokionez, ZAEA eskumenduna delako tesiari eusten dio, baita 6 milioi euro baino gehiagoko eragiketa-bolumenera iristen ez bada ere, izan ere, zerga-helbidea lurralde komunera lekualdatzean ZAEA litzateke itzulketa egiteko Administrazio eskumenduna. Gainera, elementu berri bat erantsi zion eztabaidari, hots, sozietateko ordezkariaren adierazpen jakin batzuk, zeinen arabera, sozietatearen zerga-helbidea lurralde komunean egon zen beti, eraketa unetik bertatik; hori frogatzeko ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziaren Lurralde Ikuskaritzako Unitatearen Txostena aipatu zuen, 2002ko abenduaren 16koa (ikus 10. aurrekaria).

20. ZAEAK 2008ko urriaren 29an bidali zituen bere alegazioak: ekainaren 20an egindakoetan sakontzeaz gainera, beste gertakari bat erantsi zuen (guk geuk 13. aurrekarian nabarmendu genuena): Kataluniako Ekonomia eta Administrazioako Lurralde Auzitegiak akordioa hartu zuela 2008ko uztailaren 17an, eta akordio horren bidez ezetsi zuela 2002ko ekitaldiari zegokion BEZa itzultzeko eskabidea. Orobat, adierazi zuen Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ez zenez egintzak finkoak zirela eta Estatuko Administrazioak ezin zuela Ekonomia eta Administrazioako Auzitegiak adostutakoaren aurka joan zitekeen egintzarik eman.

21. Sozietateak, berriz, 2008ko urriaren 31n egin zituen bere alegazioak, geroago ikusiko dugun gisara ZAEAREN ekainaren 20ko alegazioei erantzun eta Arbitraje Batzorde honi eskatzeko erabaki dezala zein den eskumendun Administrazioa 2001ean eta 2002an autolikidatutako BEZAREN kuoten interesak itzultzeko, bai eta zenbateko horiek itzuli behar ziren unetik sortutako atzerapen-interesak ordaintzeko ere.

II. ZUZENBIDE-OINARRIAK

1. Ezer baino lehen, ZAEAK gatazka ez onartzeari buruz plazaratutako alegazioak argitu behar dira, horren aurka baitaude bai gatazka abiarazi duen sozietatea eta bai Bizkaiko Foru Aldundia ere. Lehenik eta behin, EIABAKO 9. artikuluan aurreikusitako ez onartzeko arrazoia dagoela argudiatzen du, gatazka Justizia Auzitegi batek ebatzi

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

duen heinean; izan ere, Kataluniako Ekonomia eta Administrazioeko Lurralde Auzitegiaren 2008ko bi ebazpen daude. Ebazpen horietan ez da onartzen sozietateak BEZa itzultzeko egindako eskabidea, ez 2001ekoari (epez kanpo aurkezteagatik) ez eta 2002ko urtarrila eta azaroa bitartekoari dagokionez ere. Horren arrazonamendu logikoari jarraiki, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ez denez, Kataluniako Ekonomia eta Administrazioeko Lurralde Auzitegiaren ebazpenak irmoak dira eta, hortaz, bidezkoa da aipatutako ez onartzeko arrazoia. Argudioa onartezina da juridikoki; hain zuzen ere, beste Ebazpen batzuetan esan izan dugun bezala (urtarrilaren 28ko 2/2009 Ebazpenean, adibidez), Ekonomia eta Administrazio Auzitegiak ez dira Justizia Auzitegiak azken adierazpen horrek gure ordenamendu juridikoan duen zentzuan eta, zehatzago, EIABAko 9. artikuluan jasotakoan; hala, bada, ZAEAk aipatutako jurisprudentziak (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2000ko martxoaren 21eko Epai bakar bat, finean) ez du garrantzirik, epaitu aurreko arazoak plazaratzeko bakarrik jotzen baitira halakotzat. Espainiako Konstituzioko 117. artikulutik, Botere Judizialaren Lege Organikotik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legetik, Zergei buruzko Lege Orokorretik zein Espainiako auzitegietako hainbat epaitatik (erakusgarri gisa ikus Auzitegi Nazionalaren 2003ko urtarrilaren 28ko Epaiak) ondoriozta daiteke auzitegi horiek administrazio-organoak direla, inolaz ere botere judizialari lotu ezin zaizkionak; izan ere, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretiko bidea baitira.

2. ZAEAk beste argudio bat ematen du gatazka ez onartzeko: gatazka epez kanpo aurkeztea, EIABAko 13. artikulutik erator daitekeen epeen kontaketa oinarrituta. Funtsean, adierazi du bi Administrazioek (estatukoa eta forala) beren buruak ezgaitzat jotzeko egindako adierazpenak Arbitraje Batzorde hau sortu aurretikoak direla, eta sortu ondoren Administrazio horiek ez dutela Batzordean aurkeztu, aipatutako aginduak aurreikusitako hilabeteko epean, gatazka abiarazteko eskabidea; hain zuzen ere, horrek eman dio bidea zergapekoari gatazka automatikoa proposatzeko. Erregimen iragankor baten faltan epe-kontaktari buruzko bere iritzia adierazi ondoren (iritzi hori ezaguna da, Arbitraje Batzorde honek berak Ebazpen batean baino gehiagotan baztertu eta ZAEARI hala jakinarazi baitio, hori dela eta,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

uste dugu ez dela akordio honetan errepikatu behar), ZAEAk ondorioztatzen du gatazka epez kanpo aurkeztu zuela sozietateak, 2005eko maiatzaren 2an (akatsa egon behar da, eta 2008 esan nahi omen dute), iraungitze-epea 2008ko otsailaren 17an bukatu ondoren. Ezinezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren gai horri buruzko iritzia jakitea, ez baitu inolako alegazio espliziturik egin; nolana ere, inplizituki horren aurka dagoela baieztatu daiteke, bere ondorioetan gatazka onartzen baitu. Sozietatea, aldiz, gatazka ez onartzeko arrazoi horren aurka dago; argudiatzen du epearen interpretaziorik aldekoenaren arabera gatazka aurkezteko epea 2008ko apirilaren 4tik hasten dela zenbatzen, orduantxe eratu baitzen eragingarriki Arbitraje Batzordea, eta gatazka urte horretako maiatzaren 2an aurkeztu zenez, EIABAko 13.3 artikuluan aurreikusitako epea betetzen da. Horrenbestez, ZAEAk argudiatutako epez kanpokotasuna ez da bidezkoa.

Gai horri buruz Arbitraje Batzordearen interpretazioa argia izan da orain arte egindako ebazpenetan eta horien guztien berri eman dio ZAEARI (ez diogu beharrezko irizten horiek hemen aipatzeari): hilabete bateko epea Arbitraje Batzordea eraginkorki sortu zen unetik hasten dela zenbatzen, hots, 2008ko apirilaren 4tik. Data horretatik aurrera, ZAEAk aukera izan zuen Batzordea sortu aurretik aurkeztuta zein ebazteke zeuden kasuen berri izan eta horien aurrean erantzuteko. Horrez gainera, gogoratu behar da ZAEAk ez zuela 2003an jo bere burua ezgaitzat; aitzitik, adierazpen hori administrazio-egoitzan eztabaidatu zen eta erreklamazioak Kataluniako Ekonomia eta Administrazioeko Lurralde Auzitegiak eman zituen 2008ko apirilean eta uztailean (azken horretan Ekonomia Ituneko 66.2 artikulua urraketa izan zela adierazi zuen). Arrazoi horiek guztiak direla medio, ez dugu ZAEAREN epez kanpokotasunaren alegazioa onartzen, gure iritziz gatazka automatikoa EIABAko 13.3 artikuluan aurreikusitako epearen barruan aurkeztu baitzen.

3. Horrenbestez, gatazka ez onartzeko arrazoiak (ebazpen judizialen irmotasuna eta gatazka epez kanpo aurkeztea) ezetsirik, gaiaren muinean sartzea dagokio orain. Zehaztu behar da erabaki beharreko auzia ez dela sozietateak eskubidea duen ala ez aurrekarietan aipatutako BEZa itzul diezaioten (hori ZAEAk zein Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen dute), baizik eta bi Administrazioetatik zein den eskumenduna

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
13/2008	R9/2009	2009/04/03	Estatuko Administrazioa	Bizkaiko Foru Aldundia	Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ

betebehar hori gauzatzeko, hortxe baitago, hain zuzen ere, ezadostasuna, biek ere beste Administrazioa jotzen baitute eskumenduntzat. Bestalde, ez dago inolako desadostasunik sozietateak 2001 eta 2002. urteetan egindako eragiketen % 100 lurralde komunean gauzatu izanaz. Desadostasuna, funtsean, eragiketen bolumena finkatzeko moduan dago, 2001ean 500 milioi pezetako bolumena gainditu zuen ala ez erabakitze, ekitaldi hartan (sozietatearen lehen jarduera-urtea) indarrean baitzegoen 12/1981 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren 28. artikulua, eta erabakitze, orobat, 2002an 6 milioi euroko zenbatekoa gainditu zen ala ez, urte hartako urtarrilaren 1etik aurrera indarrean zegoen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunak zenbateko hori finkatu baitzuen 27. artikuluan.

4. Eragiketen bolumena finkatzeko beste gai batzuk ere zehaztu behar dira (bi Administrazioen iritziak ezberdinak baitira): batetik, sozietatearen jarduera-hasierako data (zehazki, data horrek 2001eko martxoaren 1ean aurkeztutako jarduera-hasierako zentsu-aitorpenarekin, jarduera-adarraren zatiketa-eskriurako inskripzio datarekin, edo Liburu Egunkarian zatiketa-idazpena ireki zen egunarekin bat etorri behar duen) eta, bestetik, hala badagokio, [2. ENTITATEA]-ren kontura egindako salmentak ere eragiketen bolumenari erantsi behar zaizkion ala ez. Horiekin batera, espedientean beste arazo bat sortu da, sozietatearen zerga-helbideari dagokiona. Gai hori ZAEAK zein Bizkaiko Foru Aldundiak aipatu dute baina sozietateak ez du bere alegazioetan jaso, ekonomia- eta Administrazio-egoitzan plazaratu zuen arren. Bigarren mailako gaia da, baina erabakigarria izan liteke aurreko irizpideen arabera lotura-gunea zehaztu ezingo balitz.

Hala, bada, eta sozietateak bere jarduera 2001ean hasi zuela aintzat hartuta, urte osoko eragiketa-bolumena zehaztu behar da (horrela xedatzen du Ekonomia Itunak 28.3 *in fine* artikuluan), 500 milioi pezetako zenbatekoa gainditzeko duen ala ez ikusteko, izan ere, muga hori finkatu zen ekitaldi hartarako abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak Ekonomia Itunari emandako idazketan. Hori guztia ikusita, funtsezko garrantzia du jarduera-hasieraren egunak, 1981eko Ekonomia Itunaren 28.3 artikuluan (abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak emandako idazketan, Lege hori baitzegoen indarrean gatazka abiarazi zen unean) honela xedatzen baitu, hitzez hitz: “Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 500 milioi pezetako kopurua zenbatzeko,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

lehen urte naturalean egindako eragiketa bolumena hartuko da kontuan”, eta eransten du “Jardueran emandako lehenengo urtea bat ez badator urtebete naturalarekin, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko”. Azken suposamendu hori da, hain zuzen ere, gatazka honetan aztertzen ari garena.

ZAEAREN aburuz, BEZAREN Legeko 5.2 artikulua (abendua 29ko 14/2000 Legeak emandako idazketan, hori baita aplikagarria 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera) xedatzen du jardura-hasiera, baita Bizkaiko lurralde historikoko 2/1994 Foru Arauaren agindu berberak ere: “Zerga honen ondoretarako, enpresa- edo lanbide-jarduerak ondasunak edo zerbitzuak jardueretan erabiltzeko eskuratzen diren unean hasitzat joko dira (...). Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen dituztenak une horretatik bertatik enpresaburu edo profesional izango dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoretarako.”

Ondoren, ZAEAK BEZAREN Legeko 111. artikulua aipatzen du (jardura-hasieraren aurretik jasandako kuotak kentzeari buruzkoa) jardueren hasiera-unearen definizioa argudiatzeko, eta honako hau ondorioztatzen du hortik: "arauak bereizi egiten ditu enpresa- edo lanbide-jardueren hasiera, batetik, eta jardura horren xede diren ondasun-entregak eta zerbitzu emateak gauzatzen hasteko unea, bestetik". Horrez gainera, Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren 1985eko otsailaren 14ko Epaia eta 1996ko otsailaren 29ko Epaia aipatzen ditu, horietan adierazten baita gerora enpresa- edo lanbide-jardura abiaraztera zuzendutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeak jardura bera hastea esan nahi duela. Horrela, ZAEAREN iritziz jardueren hasiera 2001eko martxoan ezarri behar da, orduantxe aurkeztu baitzuen sozietateak Estatuko, Aldundiko eta Batasuneko (777/388/EEE Seigarren Zuzentarauko 22.1 artikulua) araudiek eskatzen duten jardura-hasierako aitorpena. Horri eransten dio logika hutsez jardura-hasierako adierazpena jardura hasteko unean aurkeztu behar dela eta, hortaz, hasiera-dataren "judizioz kanpoko aitorpena" dela horixe.

Ondoren, 2001eko martxoaren 1ean sozietateak aurkeztutako zentsu-aitorpena aipatu eta ondorioztatzen du horixe dela jardura-hasieraren unea; nolana ere, ñabardura bat gehitzen du: "une hori zentzuzkoa da guztiz, zergaren betebeharrak

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

formalak betetzen hasteko unea finkatzen baitu, nahiz eta, eragiketarik egin ez bada, ez dagoen diru-sarrerarik egiteko betebeharririk". Horri gehitu beharko litzaioke ez dagoela kentzeko edo itzultzeko betebeharririk ere, izan ere, eragiketarik ez egiteak esan nahi du ez dela izan kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen salmentarik ez erosketarik. Lehen alegazio-idatzian (bosgarren zuzenbide-oinarria) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako zentsu-aitorpena aipatu zuen soilik, eta zehaztasunik gabe eta modu okerrean adierazi zuen martxo eta iraila bitartean eragiketak gauzatu zirela (ondasunak eta zerbitzuak erostea), baina ez zuen esaten zein izan ziren, ez eta bi gertakari garrantzitsu hauek aipatu ere: a) sozietateak ez zuela BEZaren aitorten-likidaziorik aurkeztu 2001eko hirugarren hiruhilabetekora arte; eta b) baieztapen hori kontraesanean dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2002ko abenduaren 26ko Txostenarekin, azken horretan honako hau adierazita baitago, hitzez hitz: "Egindako egiaztapenetatik **ez da erosketa-eragiketa esanguratsurik izan denik ondorioztatu baieztatu ahal izateko jarduera-hasiera eragingarria zatiketa partzialaren idazpenaren (2001eko abuztuaren 31) aurretikoa dela**, izan ere, Egindako Fakturen Erregistro Liburuan urte horretako irailaren 30etik aurrera hasi dira jasotzen eragiketak. Hala ere, egia da urteko bigarren hiruhilabetekoan jasotako fakturaren bat hauteman dela...".

ZAEAK ez du behin ere aipatzen sozietateak 2002ko azaroaren 28an Administrazio horretan aurkeztutako zentsu-aitorpena (ikus 7. aurrekaria). Zentsu-aitorpen hartan 2001eko abenduaren 1era atzera eraman zuen jarduera-hasierako data.

5. Sozietateak, berriz, ez zuen jarduera-hasiera eraginkorraren dataren auzia aipatu ere egin bere 2008ko urriko alegazio-idatzian; besterik gabe adierazi zuen 2001eko uztailaren 26an [2. ENTITATEA]-ren jarduera-adar baten zatiketa partziala gauzatu zuela, iraungitzerik gabe, eta jarduera-adarra urte hartako urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginezko ondorioekin erosi zela. Gatazka aurkezteko idatzian ere ez du alegaziorik egin jarduera-hasierari buruz; A02-707788182 aktatik eratorritako likidazioaren aurka jarritako erreklamazio ekonomiko-administratiboan bakarrik adierazi zuen ikuspuntu formaletik martxoaren 1ean jarduera-hasierako 036 eredia aurkeztu zuen arren, data hori ez datorrela bat jardueraren hasiera materialarekin.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

6. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, jarduera-hasierak bat etorri behar du zergadunak erregularri hirugarrenek emandako fakturak jasotzen eta horiei fakturak egiten dizkien unearekin, eta horretarako giza baliabide eta baliabide materialak izan behar ditu. Hala, bada, Aldundiaren aburuz egoera hori 2001eko abuztuaren 31n gauzatu zen, sozietateak zatiketa partzialaren idazpena kontabilizatu zuen egunean. Horri eransten dio faktura guztiak, apirilaren 27ko bat izan ezik, 2001eko abuztuaren 31z gerokoak direla.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2002ko abenduaren 16ko Txostena aipatzen du (ZAEAK 2008ko ekainean bidalitako espedientearen 300-311. orrialdeak; aldez aurretik aipatu dugu espediente hori). Txosten horretan adierazita dago Ikuskaritzak egindako egiaztapenetatik honako ondorio hauek atera dituztela: a) Egindako fakturak 2001eko irailaren 30etik aurrera hasi ziren erregistratzen; b) Egindako fakturetan "[2. ENTITATEA]. [1. ENTITATEA]" jartzen du; c) Jasotako fakturen liburuari dagokionez, faktura gehienak 2001eko abuztuaren 31 baino geroagoak dira, 2001eko apirilaren 27an egin eta ekainaren 30ean erregistratutako bat izan ezik. Horrekin batera, txostenak berresten du lan-edo lanbide-errendimenduen gaineko atxikipeak 2001eko hirugarren hiruhilabetekotik aurrera aurkeztu zituztela eskumendun Foru Ogasunean, eta halaxe egin zutela BEZaren aitorpen-likidazioekin ere.

Foru Aldundia ez dago ados "jarduera-hasiera" kontzeptua interpretatzeko moduarekin, haren ustez Ekonomia Itunaren 28. artikuluan zehaztu gabe dagoenez gero Kode Zibileko 3. artikulua baita aplikagarria. Lehenik, adierazten du Ekonomia Ituneko 28.3 artikulua ez duela beste ezein arau aipatzen, hori dela eta, ez litzateke egokia BEZari, Ekonomia Jardueren gaineko Zergari (EJZ) edo zentsu-aitorpenei buruzko foru-arauetako artikulua jakinak aplikatzea; bigarrenik, eta testuingurua aintzat hartuta, Aldundiaren ustez jarduera-hasierak harreman zuzena izan behar du subjektu pasiboak ordainak lortzeko egindako eragiketekin; hirugarrenik, eta Ekonomia Itunaren xedea kontuan hartuz gero, argi dago Ekonomia Itunak ez badu espresuki beste kontzeptu edo obligazio formaletarako aipamen orokorrik egin, jarduera-hasieraren kontzeptua jatorrizko xedearekin bat etorrita interpretatu behar dela. Hainbat zergei dagokien araudia aztertu ondoren, Foru Aldundia ondorio

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

honetara iritsi da: "enpresa- edo lanbide-jarduerak dira norbere kontura ekoizpen-faktore materialak eta giza baliabideak (edo horietako bat) ordenatzea eskatzen dutenak, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean zein banaketan esku hartzeko xedearekin".

Labur-labur, Bizkaiko Foru Aldundiak dio apirilaren 3ko zatiketa-balantzean oinarrituta sozietateak balantzearen aktiboan eta pasiboan diruzaintza eta giza kapitala zituela soilik, hurrenez hurren. Eta eransten du zentsu-aitorpenaz eta EJZn alta emateaz gainera, sozietateak ez zuela beste inolako eragiketarik egin, eta ez zuela zorrik hirugarrenetik, ez eta krediturik ere bere alde; horrez gainera, sozietateak ez zuen jarduera gauzatzeko langilerik ez baliabide materialik. Aldundiaren hitzetan, sozietateak 2001eko abuztuaren 31tik aurrera izan zituen jardueratik eratorritako baliabideak bere esku, ordura arte ez baitzen zatiketa partzialaren idazpena kontabilizatu (gertakari hori Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2002ko abenduaren 16ko Txostenak aitortzen du).

Bizkaiko Foru Aldundiak baiesten du eragiketa-bolumena 397.861.045 pezetakoa (2.391.193,94 euro) izan zela. Zenbateko horrek bat egiten du Kataluniako Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegiaren 2008ko uztailaren 17ko Ebazpenak (seigarren gertakaria) finkatutakoarekin, baina ez, ordea, EHKLUaren akordioaren aurka aurkeztutako berrezartze-errekurtsoaren epaian ezarritakoarekin (epai horren arabera eragiketa-bolumena 2.356.848,10 euro da, hots, sozietateak bere alegazio-idatziko 9. orrialdean emandako zenbateko berbera). Gauzak horrela, Foru Aldundiak urteko eragiketa-bolumena kalkulatu du eta 7.095.816,74 euroko zenbatekoa atera zaio, hots, jarduera-hasierako urterako (2001) finkatutako 500 miloi pezetako mugatik gorakoa, eta sei milioi eurotik gorakoa (2002an BEZa ordainarazteko Administrazio eskumenduna zein den jakiteko, 2002ko Ekonomia Itun berriak mugako zenbateko hori igo ondoren). Bizkaiko Foru Aldundiak eta ZAEAK, Ekonomia eta Administrazio Lurralde Auzitegiak eta sozietateak ezarritako zenbatekoen arteko aldea ez da garrantzizkoa, ez diolako eragiten 500 miloi pezetako (2001) edo sei milioi euroko (2002) muga gainditzeari, horrenbestez, ez gara sartuko erraz konpon daitekeen egitatezko akats hori osatzen duten desadostasunen arrazoietan.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere alegazio-idatziko ondorioetan, ZAEArri egozten dio BEZa ordainarazteko (eta, horren ondorioz, itzultzeko) eskumena, bai 2001ekoa eta bai 2002ko urtarrila eta azaroa bitartekoa, honako argudio hauetan oinarrituta:

a) Jarduera-hasieraren egunak ez du bat egiten zentsu-aitorpenarekin (2001eko martxoaren 1a), zatiketaren idazpena kontabilizatzeko egunarekin baizik (2001eko abuztuaren 31).

b) Ekonomia Itunak aipatzen duen jarduera-hasierak bat etorri behar du jarduera gauzatzeari dagozkion fakturak jaso edo egiten hasteko unearekin; eta jasotako faktura guztiak (bat izan ezik) 2001eko abuztuaren 31z gerokoak dira.

c) Jarduera-hasieratik egindako eragiketak urte osora jasoz gero, 2001ean 500 milioi pezetako zenbatekoa eta 2002an 6 milioi eurokoa gainditzen dira; gainera, eragiketa guztiak lurralde komunean gauzatu direnez (ZAEAk ez du alderdi hori zalantzan jartzen, ikusi dugun bezala), BEZa ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioari dagokio, 1981eko Ekonomia Itunaren 28. artikuluekin bat etorrira.

7. Ekonomia Itunean “jarduera-hasiera” kontzeptua mugatzeko arau berezirik ez dagoenez, ulertzen dugu foru-araudira jo behar dela eta, hala badagokio, estatu-araudira, azken horrek ordezkotza izatera baitu beti 1981eko Ekonomia Itunaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren arabera. Hala, bada, gai honetan BEZaren Legeko 5. artikulua da funtsezkoa, baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Araudiaren xedapen berbera ere. Lege hori oso argia da jardueren hasierako unea finkatzeari dagokionez: jarduera ondasunak eta zerbitzuak erosteko unean hasten da, horiek jarduera garatzera bideratuta badaude eta objektiboki hala egiazta badaiteke. Era berean, Estatuko BEZaren Legeko 164. artikulua subjektu pasiboari ezartzen die zergari lotuta dauden jarduera ekonomikoen hasierari, aldaketei eta bukaerari dagozkion aitorpenak aurkezteko betebeharra, baina ez dago lotura logikorik, ZAEAk nahi duen bezala, zentsu-aitorpenaren eta jarduera-hasiera eragingarriaren artean, BEZaren Legeko 5. artikulutik ondorioztatu daitekeen gisara, eta alta-aitorpenak ez du judizioz kanpoko aitorpenaren balioa. Horrez gainera, sozietateak ez zuen jarduera hasteko botere materialik eskuragarri izan [2. ERAKUNDEA]-(a)k jarduera-adarra eman arte eta, zehatzago, ZAEAk bere 2002ko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

abenduaren 16ko Txostenean aitortu zuen bezala, zatiketa-idazpena kontabilizatu zen arte, hots, abuztuaren 31n. Erosketa hori (BEZaren Legeko 5. artikularen arabera osagai objektiboekin egiaztatu behar dena) ezin da ordeztu zentsu-aitorpena aurkeztearekin, azken hori izaera formaleko egitatea baita.

Hona hemen gure ustez jarduera 2001eko martxoaren 1ean hasi zela berresten duten osagai objektiboak:

- a) 2001eko abuztuaren 31ra arte sozietateak ez zuen zatiketa partzialaren idazpena kontabilizatu eta ordura arte ez zen, eragingarriki, BEZari atxikitako eragiketarik egin.
- b) ZAEAK berak aitortzen duen gisara (2002ko abenduaren 16ko Txostenean), ez dago jarduera-hasiera eragingarria 2001eko abuztuaren 31 baino lehen izan zela adierazten duen eragiketa esanguratsurik; hau da, ez dago jarduera ekonomiko hori gauzatzeko asmoz egindako salmentarik ez erosketarik, osagai objektuen bidez berrets daitekeenik, BEZaren Legeko 5. artikuluan xedatutakoak eskatzen duenaren arabera (arau hori, esan bezala, oinarrizkoa da auzia ebazteko).
- c) Data hori baino lehen sozietateak ez du eduki enpresa-jarduera bat gauzatzeko giza baliabide ez baliabide materialik.
- d) Zatiketa-balantzearen arabera, sozietateak ez zuen inolako eragiketarik gauzatu, ez baitago krediturik ez zorrik, baizik eta diruzaintza eta kapital soziala baino ez.
- e) 2001eko lehen bi hiruhilabetekoetan sozietateak ez zuen BEZaren aitorten-likidaziorik aurkeztu, ez eta dedukziorik eskatu ere jarduera-hasieraren aurretik jasandako kuotengatik; hain zuzen ere, lehenengo BEZ-aitorpena 2001eko hirugarren hiruhilabetekoa da. Gehiago dena, harritzekoa da ZAEAK zalantzan jarri ez izana zergatik ez zituen sozietateak aitorten-likidazioak aurkeztu, bere tesia onartuz gero hala egin behar izan baitzuen.

Hain zuzen ere, aitortpena egiteko beharra dago sortutako kuotarik egon ezean, edo jasan zein ordaindutako kuoten dedukzioa egin ezean ere (BEZaren Legeko 71.1 artikulua). Eta espedientean jasota ez dagoen arren, BEZaren gisara aldian-aldian likidatu beharreko berehalako zerga bati logikaz dagokio lehen bi seihilabetekoetako

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

autolikidazio horiek [2. ENTITATE]-(a)k egin zituela, bistan denez, 2001eko uztailean arte ez baitzen zatiketa notarioaren aurrean protokoloz ezarri.

ZAEAk 2002ko abenduaren 16ko Txostenean jarduera-hasiera formalaren eta materialaren artean egiten duen bereizketa zuzena izan daiteke semantikoki, baina ez da bidezkoa bere eskumen eza arrazoitzeko hasiera formala aipatzea soilik, eta aldi berean aitortzea (eta, hau bai, agirizko frogak da prozedura honen barruan) BEZaren Legeko 5. artikuluan xedatu gisa osagai objektiboen bidez frogatutako jarduera-hasiera eragingarria 2001eko abuztuaren 31n gauzatu zela. Argudio horiek guztiek objektiboki erakusten dute, BEZaren Legeko 5. artikulua agintzen duen gisara, sozietateak ez zuela jarduera eragingarriki hasi Bizkaiko Foru Aldundian altako zentsu-aitorpena aurkeztu zuen unean (hau da, martxoaren 1ean), baizik eta geroago, hots, 2001eko abuztuaren 31n, bere kontabilitate-liburuetan zatiketa-idazpena jaso zuen unean.

Argudio objektibo horien aurka (Legeak eskatzen dituenak) ZAEAk jartzen duen argudio bakarra ez da funtsezko izaerakoa, baizik eta (agian hutsegitez) betebeharrak formal bat betetzetik datorrena: behin baino gehiagotan esan bezala, 036 eredu martxoaren 1ean aurkeztea. Hortik, inolako oinarri edo funtsik gabe atera dituzte ondorioak, gertakariak, agiriak eta beren txostenak ere ezeztatzen dituztenak; hori gutxi balitz, isilarazi egin dute zergapekoak ZAEAn jarduera-hasiera aldatu izanaren aitortpena (2001eko abenduaren 1ean ezartzeko) aurkeztu zuela, nahiz eta orduko hartan Agentziak ez zuen baieztatu ez ezeztatu erantzunik eman.

Administrazio biek onartzen dute eragiketa guztiak lurralde komunean egin zirela eta sozietatearen 2001eko eragiketen bolumenaren ondorioz (zenbatekoetan ezberdintasunak daude, baina horrek ez dio azken emaitzari eragiten), 1981eko Ekonomia Itunaren 28. artikuluari jarraiki (38/1997 Legeak onartutako idazketan), 2001eko abuztuaren 31tik ondorioak zituen eragiketen bolumen horretan oinarrituta urtekoa kalkulatu behar dela. Eragiketa matematiko horren bidez lortutako zenbatekoa 500 milioi pezetatik gorakoa zen 2001ean: 2001eko irailtik abendura aitortutako eragiketa-bolumena 2.391.104,04 eurokoa izan bazen, urte osokoa 7.173.312,12 eurokoa litzateke. Hala, bada, 1981eko Ekonomia Itunaren 28.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

artikulua aplikatuta, eragiketa guztiak lurralde komunean gauzatu badira, eta horien bolumena urtebetean 500 milioi pezetatik gorakoa izan bada, [1. ENTITATEA]-(r)i dagokion 2001eko BEZa ordainarazteko Administrazio eskuduna Estatuko Administrazioa da.

2002ko urtarrila eta azaroa bitartean, berriz, aurreko urtean 6 milioi euroko bolumena gainditu den ala ez izan behar da kontuan. Esan bezala, 2001ean sozietateak 6 milioi euroko muga (12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren 27. artikulua ezarritako muga berria) gainditu zuenez, 2002ko lehen hamaika hilabetei dagokienez ere Estatuko Administrazioarena da BEZa ordainarazteko eskumena.

8. Goiko zuzenbide-oinarria kontuan hartuta, frogatuta gelditu da sozietateak 2001ean 500 milioi pezetako eragiketa-bolumena izan zuela, 6 milioi eurotik gorakoa, gainera (hori funtsezkoa da Estatuaren edo Foru Aldundiaren eskumena erabakitzeke, 2002ko Ekonomia Itunak eragiketa-bolumenaren muga igo baitzuen, eta urte horretako urtarrilaren 1az geroztik indarrean baitago), eta kontuan hartuta, halaber, eragiketa guztiak lurralde komunean gauzatu zirela (bi Administrazioak ados daude horretan), irizten diogu ez dela bidezkoa gatazkaren aldeek plazaratutako gainerako alegazioak epaitzen hastea, gatazka 1981eko Ekonomia Itunaren 28.1 eta 28.3 artikuluen eta 2002ko Ekonomia Ituneko 27. artikuluen bidez ebatzita gelditu baita. Hain zuzen ere, aurreko urtean 500 milioi pezetako (2001 ekitaldia) edo 6 milioi euroko (2002 ekitaldia) eragiketa-bolumena gainditu ez duten subjektu pasiboentzat bakarrik izango litzateke erabakigarria zerga-helbidea loturagune bezala; baina inguruabar hori gabe, aurkakoa baizik (hau da, eragiketa-bolumen horiek gainditu dira), alferreko lana litzateke gatazka ebazteko zerga-helbidea aintzat hartzen hastea.

9. Gauza bera gertatzen da BEZari buruzko 37/1992 Legearen 121. artikuluen eta Bizkaiko Foru Aldundiko 7/1994 Foru Arauko xedapen baliokidearen aplikagarritasunari dagokionez, izan ere, artikuluen horiek ezartzen dute noiz eta nola erantsi behar diren [2. ENTITATEA]-ren kontura egindako eragiketak sozietatearen 2001eko eragiketa-bolumena zehazteko orduan; baina, xedapen horiek aplikatzea onartuz gero, eragiketa-bolumen hori handitu besterik ez litzateke egingo. Gatazkan

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2008	R9/2009	2009/04/03	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Eragiketen bolumena eta enpresa-berregituratze eragiketak. BEZ</i>

dauden aldeek emandako argudioen arabera, 121. artikulua aplikagarria ez dela iritzita ere ez litzateke modu esanguratsuan aldatuko gatazkaren muina, 4. zuzenbide-oinarrrian aipatutako eragiketa-bolumenaren zenbatekoa bere horretan geldituko litzatekeelako. Horrenbestez, ez da beharrezkoa alegazio horri buruzko iritzirik ematea, loturagunea eta bi Administrazioetako baten eskumena erabakita daudelako dagoeneko.

10. Sozietateak Arbitraje Batzorde honi atzerapen-interesak ordaintzeari buruzko iritzia galdegin zion, baina ez dagokio orain gai hori aztertzea, Ekonomia Ituneko 66.2 artikuluan xedatutakoaren arabera Batzorde honek ez baitu eskumenik zerga-kudeaketaren arloan.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

ADOSTU DU

Estatuko Administrazioak duela eskumena [1. ENTITATEA]-ren 2001eko eta 2002ko urtarrila eta azaroa bitarteko BEZa ordainarazteko.

Irizpenik ez ematea atzerapen-interesak ordaintzeko eskabideari buruz, gai hori zerga-kudeaketaren arlokoa baita eta ez baitagokio Arbitraje Batzorde honi.